

ARABAKO CAMPUSA

KUDEAKETA TXOSTENA

2014-2015 ikasturtea

1. programa. IKASLEAK, GURE IZATEAREN ARRAZOIA

1.1. Ekintzailletza eta laneratzea bultzatzea

1.1.1. Enplegu Guneek eskaintzen dituzten zerbitzuak indartzea hiru campusetan eta gune horiek ikasleengana hurbiltzea

- Laneratzearekin lotutako hainbat ekintza bideratu ditugu Campusean, hala nola:
 - Elurreta eraikinean kokatuta dagoen Enplegurako Orientazio Zentroaren koordinazioa, haren helburuetako bat izanik lan munduan sartzeko orientazioa ematea eta ikasle egresatuen enplegagarritasuna hobetzea.
 - Gasteizko Enplegu Foroa antolatzea, Gasteizko Udalarekin elkarlanean, 2013ko abenduaren 12tik 13ra, Lascaray Ikergunean.
 - Laneratzea erraztea helburu duten ikastaroak ematea, Letren Fakultateko, Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolako eta Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolako ikasleei bereziki. 75 ikaslek baino gehiagok parte hartu dute.
 - Gainera, 2013ko azaroaren 25etik 28ra, "Lanbideratzea Errazteko Gaitasunak" izeneko ikastaroaren zortzigarren edizioa antolatzea. 11 ikaslek eman zuten izena.
 - Lehen Aukera programaren barnean, enplegua bilatzeko gaitasun aurreratuei buruzko ikastaroa eskaintzea.

1.1.2. Ekintzailletzaren arloan laguntza eta aholkuak ematea ikasleei, autoenplegua sustatzeko, eta prestakuntza kooperatibo-enpresariala eskaintzea

- Ekintzailletzaren Kultura zabaltzeko lanaren barnean, jarduera hauek egin ditugu Arabako Campusean INIZIA programa garatzeko:
 - Arabako Unibertsitate Ekintzailearen IV. INIZIA Sariaren deialdia, unibertsitateko kolektiboetara zuzendua. 13 proiektu baloratu dira eta horietatik 3k jaso dute saria.
 - Ekintzaileen arteko harremanak sustatzeko eta tokiko mintegien sare bat sortzeko ekintza bateratuak diseinatzea eta gauzatzea (Udala, Ajebask eta CEIA).
 - Ekintzaileentzako lehenengo "Coworking eta Coworkers" jardunaldian parte hartzea. Azaroaren 19an egin zen, Gasteizko Villasuso Jauregian.
 - 2014ko azaroaren 10 eta 12an, Lasaray Ikergunean, "Ekin eta Hazi Berrikuntzatik. Ezagutzaren kudeaketa Oinarri Teknologikoko Ekintzailletzan" izeneko jardunaldiak egin ziren.

- AGUDEZIA ekintzaileen prestakuntza eta tutoretza ikastaroaren edizio berri bat antolatu dugu, 2015eko martxoa eta ekaina bitartean. Bete egin da eskainitako gehienezko plaza kopurua, campuseko hainbat ikastegitako 15 ikasle eta ikasle ohirekin. Gainera, agerpen publiko bat egin da ikasturtean zehar garatutako enpresa proiektuak aurkezteko, eta bertan izan dira CEIAko (Arabako Eraberrikuntza Industrialdea) kideak.
- Laguntza eta aholkularitza eman zaizkie Arabako Campuseko ekintzaileei, AGUDEZIA programatik sortutako proiektuak babestuz eta tutoretza eskainiz.
- "Araba Ekinean" ekimenaren XII. ediziorako elkarlana, ekintzailatza ekimenen sarien epaimahaiko kide modura arituz, eta "Zure ideiak balio du 2014" deialdian parte hartzea.
- Gasteizko Udalarekin lankidetzan aritu gara, hitzarmen bat sinatuta, baita ekintzailatzarekin eta hiriko oinarri teknologikoko mintegiekin zerikusia duten gainerako eragileekin ere bai (Ajobask, CEIA eta Udala). Hainbat ekintza gauzatu ditugu lau erakundeen artean (Ekintzaileen Topaketa, ekintzailatzaren arloko eragileen aurkezpena Enplegu Foroan, etab.).
- Elkarlana Arabako Eraberrikuntza Industrialdearekin (CEIA), Lankidetzarako Oinarrizko Hitzarmen bat izenpetuta, sustapen, aholkularitza eta laguntza programak abian jartzeko Arabako Campuseko ekintzaileentzat eta oinarri teknologikoko enpresa berrientzat (INIZIA Arabacampus programa).

4. programa. GRADUKO ESKAINTZA IREKIA ETA BERRITZAILEA

4.1. Esperientzia Gelen ikasketa eskaintza

Esperientzia Gelen programazioa berrantolatzea, beharrak eta eskura dauden baliabideak egokituta

- Esperientzia Gelen programazioa honela antolatu dugu:
 - Giza Zientziak titulua.
 - Helduentzako Unibertsitate Ikastaroak (HUI): karreraren zehar ikasi ez ziren hautazko irakasgaiak eta irakaskuntza arautuaren planetako irakasgaiak, "Historia", "Artearen Historia" eta "Geografia eta Lurralde Antolakuntza" graduetakoak.
 - Ikastaro osagarriak: irakasle espezializatuek ikasketa planetatik kanpo eskainitako ikastaroak.
- Arabako Campuseko Esperientzia Gelen jardueren zabalkunde publikoan, tokiko prentsa izan dugu lekuko bai Ikasturte Hasieran bai Ikasturte Amaierako ekitaldian. Gainera, eginiko jardueren berri eman dugu honako hedabide hauen bidez: Radio Vitoria, Onda Cero, Radio Nacional eta Cadena Ser. Ikasturte amaieran, Radio Vitoriako "El mirador" saioak Esperientzia Geletako ikasleak eta zuzendaria elkarrizketatu zituen, eta ETBk erreportaje bat grabatu zuen, 21:00etako Teleberrirako, Giza Zientzien titulua amaitu zuten ikasleei eginiko elkarrizketez osatua.
- *La voz de la experiencia/Esperientziaren ahotsa* aldizkariaren 23. eta 24. zenbakiak argitaratu dira. Aldizkari hori zabaltzen dugu UPV/EHUko Esperientzia Gela guztietan, Arabako Campuseko zerbitzu zentraletan, Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolan, Gasteizko adindunentzako udal zentro guztietan, Vital Gizarte Ekintza Fundazioan, Gasteizko Kultura Etxean (Arabako Foru Aldundiaren Hirugarren Adinekoentzako Gelen eta liburutegi publikoaren egoitza), eta liburutegi eta artxibategi publikoetan.
- UPV/EHUko Ikasketa Klasikoen saileko Idoia Mamolar doktoreak Esperientzia Gelen ikasturte hasierako ekitaldian eman zuen hitzaldiak sortutako interesa dela-eta (*Espazio eszenikoa eta antzezpena antzerki grekoan*), antzerki taldeak antzerki klasikoko hainbat emanaldi egin ditu, Esperientzia Gelen ikasle guztien gozamenerako:
 - Agur ekitaldia Aristofanesen *Lisistrata*-ren irakurketa antzeztuarekin, 2014ko abenduaren 18an, Arabako Campusaren Unibertsitate Pabiloian.
 - Plautoren *Aulularia*-ren antzezpena, Clunia Sulpicia-ko erromatar antzokian (Burgos).

Ekintza hauen bidez, ACAEXA/AEIKE antzerki taldearen lana ezagutarazi dugu, Esperientzia Gelen irakurketa antzeztuarekin eta antzerkiari lotutako ikastaro osagarrietatik abiatzen dena. Gainera, elementu aglutinatzailea dira programa honetako ikasleentzat.

- Programa osatzeko, ekintza ugari egin dira: hitzaldiak, bisitak museoetara, kultura ibilbideak, ABAOko opera entseguetan parte hartzea, jardunaldiak, etab. Jarduera horiek guztiek Esperientzia Gelen prestakuntza osatu dute, eta motibazio gehigarri bat eman die ikasleei ezaguera berriei ekiteko.
- ACAEXA/AEIKE elkartearekin lankidetzan aritu gara, ikastaroak eta jarduerak antolatzeko Esperientzia Geletako ikasleentzat.

4.2. Ikasle egresatuen laneratzea

Lan arloko erakundeekin hitzarmen gehiago sinatzea, praktikak eta Gradu Amaierako Lanak egiteko

- Laguntza eman zaie Campuseko ikastegiei borondatezko praktikak kudeatzeko eta GAUR-PRAKTIGES plataforma erabiltzeko. Ondorioz, borondatezko praktikak eskaintzen dituzten campuseko ikastegi guztiek plataforma hori erabiltzea lortu dugu. 2014-2015 ikasturtean, 750 praktika egin dira campusean.
- Santander Beken antolakuntzan eta kudeaketan parte hartu dugu (ETEetan praktikak egiteko). Deialdi honetan, 40 beka banatu dira Arabako Campuseko ikasleen artean (186 beka eman dira guztira).
- LANBIDEREkin elkarlanean, Lehen Aukera programa zabaltzen eta kudeatzen lagundu dugu. Programaren helburua da langabezian dauden gazteak kontratatzea, lan esperientziarik gabekoak edo esperientzia txikia dutenak.
- Atzerrian praktikak egiteko beken programa koordinatu dugu (EPEZ-UPV/EHU beka). Deialdi honetan, 10 beka banatu dira Arabako Campuseko tituludunen artean.

7. programa. JAKINTZA TRANSFERENTZIA GIZARTEAREN ZERBITZURA

7. Unibertsitate Hedakuntza

7.1. Kultura ekintzak antolatzeko unibertsitateak inguruko kultur erakunde eta eragileekin duen lankidetzazabaltzea

Arabako Campuseko Errektoreordetzak kultura hedakuntzarako hainbat jarduera antolatu ditu, "ehuKultura Araba" programaren barnean. Programak 15 kultura jarduera barne hartu ditu, arte adierazpide ugariak; besteak beste, 6 musika ekitaldi, poesiari buruzko hitzaldi bat, antzerki emanaldi bat eta 4 erakusketa egin dira. Era berean, 2 zine proiektu egin dira, jatorrizko bertsoan (azpitituluekin), bi ziklotan banaturik. Jarduera horiek antolatzean, kontuan hartu dira bai joera artistiko berriak eta inguruan biran zebiltzan artisten nazioarteko eskaintza, bai bertako taldeak eta proposamen originalak, eta arreta berezia eskaini zaio ere euskarazko jarduerak egiteari.

7.2. Kultura ekintzak sustatzea eta programatzea UPV/EHUren guneetan

- Hainbat kultura ikasgela eta tailer antolatu ditugu, eta laguntzak eman dira campusean biltzarrak, mintegiak, ikastaroak eta kultura jarduerak antolatzeko.
- Unibertsitate hedakuntzarako jardueren artean, Gasteizko kultura eragileekiko lankidetzazabaltzea sustatu dugu, eta, bide horretatik, askotariko hitzarmenak lortu dira, besteak beste, Artium Museoarekin, praktiketan ari diren ikasleak hartzeko; Mendizabala Institutuarekin, Campuseko kultura jarduerak grabatzeko eta argitaratzeko; eta Gasteizko Udalaren mende diharduen Film Officekin, Cortada jaialdian lankidetzazabaltzeko. Era berean, hiriko beste kultura eragile batzuekiko elkarlana sustatu dugu, hala nola, Eusko Ikaskuntza, Antso Jakituna Fundazioa eta Montehermoso zentroarekin, lankidetzazabaltzeko Arabako gizartearentzako kultura jarduerak antolatzeari begira.

7.3. Kirol jarduerazabaltzea unibertsitateko kideen artean

- Jarduera fisikoa oro har sustatzeari dagokionez (lehiaketatik kanpoko jarduerazabaltzea), ikastaro sorta zabala antolatu dugu, eta 320 unibertsitate kidek parte hartu dute guztira.
- Lankidetzazabaltzea Gasteizko Udalarekin, kirol irakaskuntza eta kirolazabaltzeko unibertsitateko kideen artean.
- Udal instalazioetarako sarrera librea ematen duten 461 Herritarren Udal Txartel (HUT) egin dira.

- Kirol Bidean udal kanpaina bultzatu dugu, naturan eginiko jardueren programaren baitan; unibertsitateko 60 kidek parte hartu dute jarduera horietan.
- Gazte Training udal kanpaina bultzatu dugu. Hegoalde Zentroan egin da eta 23 lagunek parte hartu dute.
- Lankidetzaz Hitzarmena Gaztedi Errugbi taldearekin, errugbi eskola bultzatzeko.
- Elkarlana Atletismoko La Blanca Klubarekin, Herri Lasterketen Zirkuitua garatzeko.
- Lankidetzaz akordioak 20 gimnasio eta kirol elkarte pribaturekin. 262 ikaslek eman dute izena.
- Unibertsitateko lehiaketa kirolari dagokionez, campusean 30 kirol modalitate eskaini dira, taldekakoak eta banakakoak, eta 2.006 lagunek eman dute izena. 538 partida antolatu dira guztira, eta sailkapenean postu onena lortu dutenek hainbat mailatako lehiaketetan parte hartu dute: campus artekoa, autonomia erkidegokoa, estatukoa eta nazioartekoa.
- Arabako Campusak "Zabalki 2015" nazioarteko pilota txapelketa antolatu du, eta 11 unibertsitatek parte hartu dute guztira (estatukoak eta atzerrikoak). 84 pilotari aritu dira lehiatzen.
- Elkarlanean aritu gara hainbat erakunderekin (hala nola Estadio Fundazioarekin, Kirol Federakuntzen Arabako Federazioarekin...) hainbat gai buruzko hitzaldiak eta solasaldiak eskaintzeko: ariketa fisikoa, osasuna, kirola eta ezgaitasuna, kirol psikologia... Ikasturtean zehar 12 hitzaldi eskaini dira guztira.
- 26 ziurtagiri eman ditugu Arabako Campuseko goi mailako eta errendimendu handiko unibertsitate kirolarien tutoretza plana egin nahi izan duten ikasleentzat.
- 473 ikaslek eskatu dituzte kredituen aitortzen eta transferentziarako ziurtagiriak graduko ikasketetan.

8. programa. EUSKARAREN ETA EUSKAL KULTURAREN UNIBERTSITATEA

8.1. Euskara graduondoko eskaintzan

Jarraipena ematea tesiak euskaraz egiteko bekei

Euskararen arloko errektoreordetzari laguntza eman zaio, euskarazko doktorego tesiak sustatzeko beka/kontratuen deialdian.

8.2. Euskara zientziaren eta kulturaren arloan

8.2.1. Euskararen presentzia indartzea, udako unibertsitate ikastaroen eskaintzan.

Uda Ikastaroen programako euskarazko ikastaroen publizitatea egitea.

8.2.2. Euskaraz argitaratzeko politikarekin jarraitzea (unibertsitate testuak, itzulpenak,...), eta garrantzi berezia ematea titulu berrietarako irakaskuntza materiala argitaratzeari.

- Bultzada eman diegu irakaskuntza liburuak euskarara itzultzeari eta liburu nahiz baliabide materialak euskaraz sortzeari.
- Testuak banatzea, unibertsitate ikastegietan.

8.2.3. Euskararen erabilera eta euskal kultura sustatzea helburu duten ekimenak antolatzen laguntzea.

"Euskararen Eguna" ospatzea, Gipuzkoa eta Bizkaiko campusetan, eta "EHUskArabanda", Arabako Campusean. Azken horren barruan, honako ekimen hauek antolatu dira: ALEA, Arabako aldizkariaren 0 zenbakiaren banaketa masiboa; solasaldi bat, Euskararen arloko errektoreordearekin; film laburren bideo-maratoiaren lehiaketa, proiektzioa eta sarien banaketa barne; "Ika-mizka" saioaren emanaldia, streaming bidez; Bertsoen gaineko saio didaktikoa; bazkari herrikoa eta ESPALOIAN taldearen emanaldia. Ekitaldi guztiak Arabako Campusaren Unibertsitate Pabiloian egin ziren.

8.3. Irakasle-ikertzaileen eta AZPko langileen hizkuntz gaitasuna hobetzea

Euskara hobetzeko ikastaroen deialdia

- Arabako Campuseko errektoreordetzak, Euskararen arloko errektoreordetzarekin lankidetzan, euskara hobetzeko ikastaroak antolatu ditu; horien artean, Arabako Campusean, irakasle-ikertzaileei emandako "Ahozko jarduna hobetzen" izeneko nabarmendu behar dugu. Ikastaro horren xedea euskararen ahozko adierazpena hobetzea zen.

8.4. Irakasle eta ikertzaile elebidunen plazen kopurua handitzea

Irakasle eta Ikertzaileen arloko errektoreordetzarekin koordinatzea, plaza berrien eskaerak aztertzeke.

Euskararen II. Plan Gidariaren aplikazioaren jarraipena egin da. Horren bidez, irakats eskaintza aztertu da (2012/2013 planaren luzapen-egokitzapenean ezarritako hizkuntza ereduen arabera), eta irakasle elebidunen beharrak aztertu dira, Campusaren ikastegietan eta graduetan. Jarduerak elkarlanean egin dira Euskararen arloko errektoreordetzarekin eta Gipuzkoako eta Bizkaiko Euskara zuzendaritzekin.

8.5. Eleaniztasuna

Irakasle-ikertzaileentzako eta AZPko langileentzako hizkuntza ikastaroen eskaintza babestea eta indartzea.

- Arabako Campusaren hizkuntza laborategia antolatu eta kudeatu da, ingeleseko, frantseseko eta alemaneko autoikaskuntzarako multimedia sistema baten bidez (TellMeMore) eta tutoretzako laguntzen bidez. Hizkuntza laborategia 2 orduko saioetarako ireki da, astean bi egunetan, eta unibertsitateko kide guztien esku dago.
- Ingeleseko mintegiak eta tailerrak antolatu dira, hizkuntzaren hainbat arlo lantzeko:
 - Ingeles orokorreko mintegiak I
 - Ingeles orokorreko mintegiak II
 - Idatzizko ulermenari eta adierazpenari buruzko mintegia
 - Ahozko ulermenari eta adierazpenari buruzko mintegia
 - Mintegiek 20 orduko iraupena izan dute, eta astean behingo bi orduko 10 saiotan eman dira. Bi deialdi egin dira, bat lauhileko bakoitzean, lauhileko tailer bana eman baita.
 - Tresnak webgunean, ingeleseko autoikaskuntzarako: 5 orduko ikastaro bat da, lauhileko bakoitzean deitu eta eman dena.

Ikastaroak unibertsitateko kide guztiei eskaini zaizkie.

- Maiatzean, TOPTULTE (*Test of Performance for Teaching at University level through the medium of English*) azterketa prestatzeko ikastaro trinko bat antolatu da.

9. programa. MUNDURA IREKITAKO UNIBERTSITATEA

9.1. Nazioarteko mugikortasuna eta trukea.

Atzerrian egonaldiak egiteko programak eta mugikortasun programak zabaltzea eta kudeatzea, graduako eta graduondoko ikasleentzat.

- 2014/2015 ikasturtean, Arabako Campusak, beste bi campusekin batera, ikasle egresatuentzako EPEZ III mugikortasun programan parte hartu du. Horren bidez, 72 gradudunek praktikak egin zituzten, Europako enpresetan.
- Era berean, 2014ko abenduaren 11an eta 12an egindako enplegu foroan, Kontrataziorako Laguntza Baliabideei buruzko saio espezifiko bat antolatu zen, eta saioan informazioa eman zen UPV/EHUK bere ikasleen eta egresatuen laneratze eta enplegarritasunerako dituen bitartekoei buruz (Global Training beka, EPEZ beka-EUEB-CEPYME beka, enpresako praktiken programa...), baita erakunde pribatuen baliabideei buruz, hala nola Mapfre Fundazioaren beka eta Nestle Youth Employment Initiative.

12. Programa. CAMPUSETAKO BIZITZA

12.1. Campusen garapena

12.1.1. Urte anitzerako inbertsio plana (2011-2015) gauzatzea.

- Micaela Portilla Gizarte eta Giza Zientzien Ikergunea. Eraikitze lanak 2014ko uztailean amaitu ostean, lehenengoz okupatzeko lizentzia eta jarduera lizentzia eskuratu ditugu, eta bermealdiko jarraipenari lotutako lanak egin ditugu, baita eraikina hornitzeari lotutakoak ere.

12.1.2. Enpresa mintegien funtzionamendua bultzatzea.

- 2014ko urrian eta azaroan, urtebetez luzatu zitzairen egonaldia enpresa hauei: Baigene, S.L eta Un-Diet Unidad de Salud alimentaria Elikadura-osasuneko Unitatea, S.L. Era berean, 2015eko apirilean, ebaluazio batzordea bi enpresa horiekin elkartu zen, haien garapenaren eta bilakaeraren jarraipena egiteko.
- Mintegiko hirugarren enpresari (i+Med S.Coop) baimena 2015eko maiatzera arte luzatu zitzaion, bai mintegiko bulegorako bai Lascaray Ikergunearen ikerketa espazio komunetara sartzeko eta horiek erabiltzeko.

12.1.3. Eraikinak indarrean dagoen araudira egokitzea (prebentzioa, irisgarritasuna eta jarduera lizentziak).

- Eraikinak eraberritzeko, zabaltzeko eta hobetzeko jardueren testuinguruan, besteak beste, Farmazia Fakultateko Elikagaien Plantan elikagaiekin erabiltzeko egokia den zoladura higienikoa jarri dugu.
- Era beran, hobekuntzak egin dira Letren Fakultateko Areto Nagusiaren klimatizazioan eta Farmazia Fakultateko ikus-entzunezko teknikarien lokalaren aireztapen sisteman.
- Argiztapen eta presentzia hautemateko sistemaren sektorizazioa hedatzeko lan ildoaren barruan, Irakasleen Unibertsitate Eskolako gune komunak argiztapena sektorizatu da (BS, 1.a, 2.a eta 3.a).
- Era berean, lanak egin dira Farmazia Fakultateko eta Irakasleen Unibertsitate Eskolako gelen eta laborategien sabaietan, baldintza akustikoak hobetzeko. Farmazia Fakultateko laborategi jakin batzuetako klimatizazio instalazioetan ere lanak egin dira, erosotasun termikoa hobetzeko. Era berean, aurreko urteetako lan ildoak jarraituta, lokal horietan eraginkortasun handiagoko argiak jarri dira, aurrekoen ordean.
- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateko kiroldegiaren dutxen eremuko instalazioak eraberritu dira.

- IKD gune bana amaitu eta ireki da, Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolan eta Medikuntzako Irakasgunean.
- Irisgarritasuna hobetzeari dagokionez, ikastegiaren sarbide nagusiak hobetzen jarraitu dugu (eskudelak ipintzea, ate automatikoak...).
- Bestalde, hainbat hobekuntza egin dira suteen alarma eta hautemate sistemetan: Sirenak jartzea, Farmazia Fakultatean; ateak ixteko hautagailuak jartzea eta suteen zentrala berriro programatzea, Ingeniaritzako UEn; xurgatze bidezko hautemate sistema jartzea, Elurreta eraikinaren estalduran eta alarma faltsuak saihesteko sistema aldatzea eraikin beraren gune gangadunetan; Elurretako DPZn sua itzaltzeko sistemak aldatzea eta ur lainoztatuaren bidezko itzaltze sistemak jartzea; Ikasgelategian ebakuazio seinaleak hobetzea; Jardueran Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatearen eraberritu gabeko eta kiroldegiko hautemate sistema campuseko segurtasun kontrol zentroan txertatzea; etab.
- Campuseko eraikin guztietako estaldura, teilatu eta zabaltza guztietan, inbentarioa, analisi-ebaluazioa eta ikuskaritza egin da, eta hobekuntza jarduerak finkatu dira. Azterketa horren ondoren, babes bitartekoak jartzeko lanak egin dira Letren Fakultateko eraikinetan eta eratzikian, Irakasleen UEn, Pabiloian, Micaela Portillan, eta Lascarayn. Lan ildo horren barruan, aipatutako bitarteko horiek campusaren gainerako eraikinetan jartzeko lanak esleitu dira. Lanak abenduan amaitzea aurreikusi da.
- Lascaray ikergunean instalazio erradioaktibo bat jartzeko eskaera egin zaio Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioen Zuzendaritzari. Instalazioak ikuskatzeko bisitaren zain gaude, ireki dadin.
- Amaitzeko, unibertsitate zerbitzurako egokia ez den material informatikoa dohainik besterentzeko beharrezkoak diren dokumentazioak eta txostenak egin ditugu, 2015-2016 ikasturtean dagokion deialdia argitaratu ahal izateko.
- Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolaren, Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolaren eta Medikuntzako Irakasgunearen jarduera lizentziak lortzeko memoriak aurkeztu ditugu Gasteizko Udalean. Memoria horiek aurkeztuta, amaitutzat ematen da jarduera ildo hau.
- Micaela Portilla Zentroaren autobabeserako plan berria idatzi dugu, eta planak eguneratu ditugu Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolan, Letren Fakultatean, Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolan, Gizarte Langintzako Eskolan, Pabiloian, MIn, eta Irakasleen Eskolan. Era berean, hobetze lanak egin dira hainbat instalazioetan (galdara gelak), ATEX (atmosfera leherkorrak) araudira egokitu daitezten.

- 2015-2016 ikasturterako, autobabeserako planak eguneratu nahi dira honako haueetan: Elurreta Ikasgelategia, Farmazia Fakultatea, Letren Fakultateko Eratzikia, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Fakultatea, eta Lascaray ikergunea.
- Ebakuazio simulakroei dagokienez, 2014-15 ikasturtean, egin ziren, besteak beste, Elurreta Ikasgelategian, Letren Fakultateko eraikinean eta haren eratzikian, Errektoreordetzan, Pabiloian, etab.

12.1.4 Campusetako irakaskuntza, ikerkuntza eta gestioa Europako Unibertsitate Eremura egokitzen laguntzea.

- Arabako Campuseko errektoreordeak lankidetzan jardun du Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko errektoreordetzarekin, irakasle-ikertzaileen prestakuntza hobetzeko campusean egindako jardueren jarraipena egiteko, hala nola:
 - Irakasleen eta ikertzaileen behar espezifiko nahiz zeharkakoei erantzuteko xedea duen "Ikerketak Metodologikoki Laguntzeko Mintegi Iraunkorraren" deialdiaren testuinguruan, gaitasunak hobetzera bideratutako prestakuntza eskaini da, Arabako Campusean. Aldi honetan, 6 ikastaro antolatu dira, eta 100 pertsonak baino gehiago parte hartu dute.
 - EHUNDU programa, ikastegietan gradu berrien curriculumak garatzeko. Horren harira, aholkularitza erako lankidetzan egin da, ikastegiek hala eskatuta, irakaskuntza berrikuntzari lotutako hainbat gairen inguruan.
 - 2012-14 aldiaren Hezkuntza Berrikuntzarako 4 proiektu amaitu dira; 2013-15 aldiari jarraipena egin zaio; eta, 4 proiektu jarri dira martxan, 2014-16 biurtekorako, campusean garatu dira guztiak.
 - UIPP Programako ikastaroen bi deialdi egin dira, eta horien bidez campuseko irakasle-ikertzaileen gaitasunak eta kualifikazioa hobetzeko 14 ikastaro eskaini dira, bai aurrez aurre bai sarean.
 - Irakasleak irakaskuntza metodologia aktiboetan trebatzeko ERAGIN programan, non irakasleak "Kasuaren metodologia, arazoetan oinarrituriko ikaskuntza edo ikaskuntza kooperatiboa eta proiektuetan oinarritua" izeneko tailerlean parte hartzen ari diren, 5. edizioari dagokionez, 2014-15 ikasturtean, 3 proiektu berri ezarri dira, eta 5 irakasle ari dira parte hartzen. Horrez gain, 6. edizioan, 13 irakaslek eman dute izena beren proiektuak diseinatzeko, eta 2015-14 ikasturtean ezarriko dira.

12.1.5. Tokiko eta lurraldeko erakundeekin harremanetan jartzea, lankidetzako proiektuak sortzeko.

- Arabako Campusean, Arabako Foru Aldundiarekin dugun lankidetzari esker, Giza Zientziak titulua emateko harekin sinatutako hitzarmena berri du (Vital Fundazioarekin eginiko hitzarmen baten bidez ere finantzatu dena); akordioa ere sinatu dugu, campuseko Gazte Informaziorako Gunea mantentzeko. Gasteizko Udalak, bestalde, unibertsitateko kideen artean ariketa fisikoa bultzatzeko ekimenean parte hartu du, haien eskura jarri hainbat kirol gune eta instalazio. Guk, era berean, Cortada Film Laburren Jaialdia finantzatzeko lagundu dugu, eta ekintzailatza bultzatzeko lankidetzako hitzarmena berri du. Kirol arloan, lankidetzako hitzarmenak egin ditugu hiriko hogeita bat gimnasiorekin, unibertsitateko kideentzat abantailak lortzeko.

12.2. Iraunkortasuna eta ingurumena

12.2.1. Energia aurrezteko bidean aurrerapausoak ematea (eko-gestio proiektuak, ingurumen gestioa).

- 2015/02/24an eginiko ikuskaritzaren ondoren, Arabako Campuseko errektoreordetzak ECOSCAN+ ziurtagiria eskuratu du. 2014ko hobekuntza planak ezarri zituen, besteak beste, honako jarduerak hauek: Vending-etik eratorritako hondakinen kontsumoa murriztea eta birziklatzea areagotzea, toner kontsumoa murriztea, digitalizatutako dokumentuen inprimaketa murriztea, aurreko urteetan paper kontsumoaren aurrezkian lortutako emaitzei eustea, eta kirol eta kulturako publizitate aleen tirada eskaerara egokitzea.
- UPV/EHUko Arabako Campuseko eraikin guztietan egin beharreko energia azterketak amaitu ditugu. Era berean, Micaela Portilla Zentroan, instalazio fotovoltaiko berri bat jarri dugu martxan.

12.2.2. Erakundeekin batera lan egitea garraio publikoa hobetzeko, eta ordezkoko garraiobideen erabilera bultzatzea.

Gasteizko autobus geltokia lekuz aldatzeak campuserako garraio publikoan dituen eraginei buruzko txostena eta mugikortasun azterketa garatzeari begira, hartu-emanak izan ditugu Arabako Foru Aldundiarekin, Gasteizko Udalarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin, campuseko gaur egungo geltokiak mantentzeko eta bultzatzeko, Bilboko metropolialdetik joan-etorriak egiten duen garraioari dagokionez. Hori guztiaren helburua da iraunkortasun handiagoa lortzea, unibertsitate jarduerak eragiten dituen herritarren joan-etorrietan.